

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

394/2026 Foru Agindua, abuztuaren 4koa. Bitarteko izendapena egitea Maite Alberdi Goenagari, Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko

2026ko uztailaren 30eko sarrera datarekin, Asparreneko Udalak Maite Alberdi Goenaga bitarteko funtzionario izendatzeko eskatu zuen, Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 2026ko abuztuaren 3tik aurrerako ondorioekin, lanpostua egun hutsik dagoelako.

Espedientean jasotzen denez, 2026ko uztailaren 20ko ALHAOn (82. zk.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estatutako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina 2026ko uztailaren 28ko eginbidean egiaztatzen denez, ez da inongo karrerako funtzionarioen eskaerarik jaso eskaerak aurkezteko epean.

Asparreneko Udalak hautaketa prozedura izapidetu du, berdintasun, merezimendu, gaitasun, publizitate eta bizkortasun printzipioak betez, Udal horretako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko lan poltsa bat eratzeko.

Lan poltsan sartutako hautagai guztiei deialdia egin ondoren, Alkatetzak Maite Alberdi Goenaga izendatzea proposatu du, 2026ko abuztuaren 3tik aurrerako ondorioekin. Lehen hautagaia da, puntuazio ordenaren arabera, izendapen proposamena onartzen duena, eta sartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa epe barruan aurkeztu du.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio:

Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua aldi baterako funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena.”

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maite Alberdi Goenaga izendatzea, 2026ko abuztuaren 3tik aurrerako ondorioekin, Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Asparreneko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduarien Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA